2023 ZURICH MARATOI ERDIAREN ARAUDIA

1. ARTIKULUA – EGUNA ETA ORDUA

C.D.IRTEERA K.E.-k Zurich Media Maratón Donostia antolatuko du 2023ko urriaren 1an.

Irteera goizeko 10: 00etan izango da Alderi Ederreko lorategietan (Donostiako udaletxearen aurrean), hiri-ibilbide bat hasteko asfaltoaren gainean, RF.E.A.k homologatutako itzuli bat, 21.097m-ko distantzian. Helmuga puntu berean egongo da eta 2:30eko muga-denboran amaitu behar da. Zirkuitoan zehar kilometro guztien kokapen zehatza nabarmendutak egongo dira..
www.zurichmediomaratonsebastian.com

2. ARTIKULUA – PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 2005.urtean edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake, edozein sexu edo herrialdetakoa izanik, federatua izan edo ez, RFEAko araudiak onartuz.

Froga honetan parte hartu ahal izateko ondorengo balditzetako bat bete behar da derrigorrez:

3. ARTIKULUA – IZEN EMATEA

Partaide kopurua gehienez 2.000 lasterkarikoa izango da.

Izen-ematea ON LINE bidez egin daiteke, www.zurichmediomaratonsansebastian.com helbidean. Ordaintzeko modua kreditu-txartela edo barrutia izango da, eta ordainketa inskripzioa formalizatzerakoan egin beharko da.

Izen-emateak irailaren 26ra arte egongo dira zabalik, beti ere dortsalak libre geratzen badira.

RFEA lizentzia nazionala ez duten atleta guztiek eguneko lizentzia eskuratu behar dute nahitaez; lizentzia horren kostua 3 eurokoa da. Ondoren adierazitako prezio guztiei eguneko lizentziaren 3 euro gehitu behar zaizkie lizentzia eskuratzeko betebeharra duten atleta guztientzat.

Izen-emate prezioak: izen emate guztiek dortsal-txipa dute

Lehenengo 200 inskripzioak	25,00 €
Maiatzaren 30era arte inskribatutako gainerakoak	26,00 €
Ekainaren 1etik 30era	27,00 €
Uztailaren 1etik 31era	28,00 €
Abuztuaren 1etik 31era	29,00 €
Irailaren 1etik 15era	30,00 €
Irailaren 16etik 29era	31,00 €

4. ARTIKULUA- IZEN EMATE ITZULPENA

Inskripzioa egin ondoren, ezin izango da inola ere itzuli inskripzioaren zenbatekoa, eta ezingo da gorde etorkizuneko edizioetarako. Izena ematean, 4,00 €ko itzulketa-bermea kontratatzeko aukera egongo da. Berme horrek izen-ematearen zenbatekoaren % 100 irailaren 1era arte itzuliko dela bermatzen du, eta data horretatik aurrera eta irailaren 18ra arte, hurrengo ediziorako gordetzeko aukera eskaintzen du. Itzulketa-bermea nahitaez kontratatu behar da inskripzioa formalizatzen den unean. Berme horren zenbatekoa ezin da inola ere itzuli. Itzulketa gauzatzeko, inskripzioaren titularrak eskatu behar du, mezu elektroniko bat bidaliz zmm@flyactions.com helbidera, izena, abizenak, inskribatuaren NANa eta inskripzioan agertzen den eskaera-zenbakia adieraziz.

5. ARTIKULUA- DORTSALA NOIZ JASO

Dortsala, txipa eta lasterkariaren boltsa hurrengo orduetan jasoko dira Donostiako Udala, Alderdi-Eder, 1 zkan :

IRAILAK 30, LARUNBATA, 15:00 ETATIK 19:00ETARA

IGANDEA, URRIAREN 01A, 08:00 ETATIK 09:00ERA (gomendatzen da bilketa ez uztea iganderako, eta bezperan hirugarren pertsona bat bidaltzea, bertara joan ezin bada).

NANa eskatzen da, eta hirugarren pertsona bat badoa, NANaren fotokopia edo haren argazkia eraman behar du mugikorrean.

Halaber, izena emateko orduan, uztailaren 31 baino lehen, dortsala etxera bidaltzeko aukera izango da, 10,00 €-ko kostuarekin.

6. ARTIKULUA – DORTSAL-TXIPAREN DERRIGORTASUNA

Dortsala-txipa beharrezkoak izango da. Dortsala bularrean ikusgai eraman behar da.

7. ARTIKULUA- DENBORA MUGA ETA ERBIAK

Lasterketa burutzeko denbora muga 2h30-koa da.

Km1- 00:10	**Km2- 00:17**	**Km3- 00:24**	**Km4- 00:31**	**Km5- 00:38**	**Km6- 00:45**	**Km7- 00:52**
Km8- 00:59	**Km9- 01:06**	**Km10- 01:13**	**Km11- 01:20**	**Km12- 01:27**	**Km13- 01:34**	**Km14- 01:41**
Km15- 01:48	**Km16- 01:55**	**Km17- 02:02**	**Km18- 02:09**	**Km19- 02:16**	**Km20- 02:23**	**Km21- 02:30**

8. ARTIKULUA- DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Lasterkariak deskalifikatuak izango dira honako kasuotan,:

- Ezarritako kontroletatik pasatzen ez direnak.
- Ibilbide osoa burutzen ez dutenak.
- Dortsal-txiparen publizitatean aldaketak egin edo ezkutatzen dituztenak
- Beste lasterkari baten dortsala edo txipa eramaten dutenak.
- Epaileen edo antolakuntzako lankideen aginduak jarraitzen ez dituztenak.
- Aurtengo edizioko dortsal-txipa ez daramatenak.
- Helmugara dortsalik gabe iristen direnak.
- Proban izena eman ez duten lasterkariak edo ofizialak ez diren ibilgailuen laguntza jasotzen dutenak.
- Ibilbidearen mapan agertzen diren hornidura postu ofizialetatik kanpo hornitzen direnak.
- Ibilgailuetatik edo beste korrikalarien hornidurak jasotzen dutenak.

- Ibilbidearen barnean haurren aulkiak edo kotxeak eramaten dituztenak.
- Haurrekin ibilbidearen barnean korrika egiten dutenak. Helmugan ere.
- Bestalde, proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzakoak izango dira, eta hauek behar bezala bereizita egongo dira.

9. ARTIKULUA- HORNIDURA

Hornidura orokorra egongo da 5 km, 5k, 10k, 15k, 20K inguruan. Hornidura guztien kokapen zehatza ibilbidearen planoan adierazten da (ikus webgunea). Helmugan ere hornidura egongo da.

10. ARTIKULUA – ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera.
Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatu bada istripua. Aitzitik, ez die erantzungo ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoei. Bestalde, aseguruak ez ditu bere gain hartuko lasterketa gunera heltzeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak .

11. ARTIKULUA – OSASUN SOROSPENA

Osasun sorospen postuak zirkuituaren puntu desberdinetan eta helmugan jarriko dira. Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die lasterkariei, era berean, parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirol ekintzak dakarren arriskua.

12. DOPING KONTROLA

IAAFren arauei jarraituz, ente ofizialek aukeratutako lasterkariei (emakume nahiz gizonezkoei) doping froga egingo zaie.

Gogoan izan, doping kontrolari uko egiten diotenek lasterketatik kanpo geratuko direla. Bestalde, eskudiruzko sariren bat lortzen dutenek ezin izango dute saria jaso antolatzaileak doping kontrolaren emaitzak izan arte.

Doping kontrolaren emaitza positiboa izanez gero, kontra-analisiak egingo lirateke, eta bigarren aldiz positiboa aterako balitz, parte hartzailea inolako saririk gabe gelditukо litzateke.

13. ARTIKULUA – SARIAK

Lehen hiru sailkatu absolutuek, emakumezkoek zein gizonezkoek, garaikurrak jasoko dituzte. Garaikur berdinak izango dira gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat.

14. ARTIKULUA – ERBIAK

Antolatzaileek behar bezala identifikatutako 9 erbi izango dituzte, 1:20, 1:25, 1:30, 1:35, 1:40, 1:45, 1:50, 2:00 eta 2:30 egiteko erritmo egokia inprimatzeko.

15. ARTIKULUA- SAILKAPENA

Antolakuntzak sailkapen ofizial batzuk argitaratuko ditu bere webgunean probaren egunean. Hurrengo egunean sailkapen ofizialak argitaratuko dira.

Epaileek aldatu ahal izango dituzte, antolatzaileek denborak kontrolatzeko ibilbidean zehar jartzen dituzten igarotze-kontrolak berrikusi ondoren, urriaren 16ra arte, egun horretan behin betiko sailkapen ofizialak egingo baitira. Erregelamendu honetan jasota ez dagoen guztia RFEA erregelamenduak arautuko du.

16. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaile guztiek, inskripzioa formalizatzeagatik, Erregelamendu hau onartzen dute, eta baimena ematen dute C.D.IRTEERA K.E.-k, bere kabuz edo beste erakunde batzuen bidez, datu pertsonalak informatikoki tratatzeko, kirol-, sustapen- edo merkataritza-helburuz soilik, bai eta probaren barruko irudia ere, argazkien, bideoaren eta abarren bidez.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, parte-hartzaileak fitxategi horietara sartzeko eskubidea baliatu ahal izango du, fitxategiaren edukia zati batean edo osorik zuzentzeko edo ezerezteko. Eskubide hori erabiltzeko, C.D.IRTEERA K.E. helbidera idatziz edo 21irteera@gmail.com helbidera idatziz eskatu beharko duzu.

Araudi hau AEEFren adostasunarekin onartu da.
Aurreikusi ez den guztia R.F.E.A. arauen arabera arautuko da.